

Euskal AEko ondasunen esportazioak %7,1 murriztu ziren 2019ko urrian, eta inportazioak %8,9

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak 4.334 milioi euroko saldo positiboa izan du 2019ko urtariletik urrira

Euskal AEko **ondasunen esportazioek**, urte arteko tasan, %7,1eko jaitsiera izan zuten 2019ko urrian, Eustatek emandako datuen arabera. Zenbateko hori 2.362 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.543 milioien aldean. Produktu energetikoen esportazioak %34,0 jaitsi ziren, eta produktu ez-energetikoenak %2,8.

Bizkaia da beherakada handiena izan duen lurraldea, %20,4rekin, hala *produktu energetikoen* esportazioek (-%33,4) nola *ez-energetikoenek* (-%14,6) behera egin dutelako. Araban esportazioak %0,4 hazi dira, eta Gipuzkoan %6,8.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2019 Urria

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria			Urria		
	2018	2019	Δ %	2018	2019	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	2.543.319	2.362.289	-7,1	1.928.247	1.756.822	-8,9
PRODUKTU ENERGETIKOAK	352.977	232.945	-34,0	637.812	469.573	-26,4
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	2.190.342	2.129.344	-2,8	1.290.436	1.287.249	-0,2
URTEKO METATUA	21.658.947	21.237.709	-1,9	16.955.650	16.903.721	-0,3
PRODUKTU ENERGETIKOAK	2.162.250	1.730.735	-20,0	4.834.767	4.545.653	-6,0
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	19.496.697	19.506.974	0,1	12.120.884	12.358.068	2,0
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	686.312	689.396	0,4	368.722	401.076	8,8
URTEKO METATUA	6.465.129	6.050.400	-6,4	3.611.381	3.461.784	-4,1
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	1.143.813	910.979	-20,4	1.173.485	1.001.881	-14,6
URTEKO METATUA	8.881.890	8.082.449	-9,0	9.963.759	9.840.714	-1,2
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	713.194	761.914	6,8	386.041	353.865	-8,3
URTEKO METATUA	6.311.927	7.104.860	12,6	3.380.510	3.601.222	6,5

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskal AEko **ondasunen inportazioak** %8,9 jaitsi ziren, 1.757 milioi euroko zenbatekora iritsiz. Inportazio *energetikoak* %26,4 jaitsi ziren, eta *ez-energetikoak* %0,2 hazi.


Lurraldeen arabera, inportazioek behera egin dute Bizkaian (-%14,6) eta Gipuzkoan (-%8,3); Araban, berriz, %8,8 hazi dira.

A86 jarduera-adar garrantzitsuenak aztertuz, eta esportazioei dagokienez, hilabete honetan nabarmentzekoa da *Ibilgailu motordunen fabrikazioarekin* lotutako produktuak egonkortu egin direla, %0,3 igo baitira. Halatan, berriz ere esportazio-bolumen handieneko adarra da hura (guztizkoaren %23,3). Seigarrenak (guztizkoaren %5,7), *Garraioko beste materialak*, %113,2ko igoera nabarmena izan zuen; bigarrenak, *Erabilera orokorreko makineriak*, %2,1 egin du behera; hirugarrenak, *Siderurgiak*, %30,3 egin zuen behera. *Kokeriak eta petrolioak* %36,7 jaitsi dira, eta *Metalezko artikulak* %17,6.

Xehetasunetara jaitsiz, eta muga-zerga partida esportatzaile nagusietarako, igoera nabarmenak gertatu dira 10 pertsona baino gutxiagoko turismoetan (%31,7 hazi dira), Trenbide eta tranbia autopropultsatuetarako automotorretan (%436,9ko hazkundea) eta Hari, elektrizitate-eroale diren kable isolatu eta zuntz optikozko kableetan (%166,8); Trenbide eta antzekoetarako ibilgailu-zatien partidak ere nabarmen egin du gora (%48,5). Alderantzizko zentzuan, beherakada handia izan dute Petrolio-olio finduek (-%29,1), Ibilgailu automobilen zati eta osagarriek (-%12,4) eta Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilerik (-%23,0).

Hilabete honetan, bost herrialdek (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Estatu Batuak eta Portugal) Euskal AEko esportazio guztien %50 baino gehiago hartu dituzte (%51,9). Berritasuna da Portugalak bosgarren postutik kendu dituela Italia, Belgika edo Herbehereak bezalako herrialde batzuk, tradizionalki toki hori okupatu dutenak. EB28k esportazioaren %69,3 biltzen du, 1.638,1 milioi euroekin.

Inportazioak A86 jarduera-adarren arabera aztertuz gero, ikusten da ezen garrantzitsuenak, Erauzketa- eta petrolio-industriak deritzonak (guztizkoaren %25,7), %23,8ko beherakada izan duela; orobat, jaitsi dira Siderurgiako produktuen inportazioa (-%23,0) eta Erabilera orokorreko makineriarena (-%1,4) ere. Aitzitik, Ibilgailu motordunen eta horien zatien inportazioak %17,9 igo dira (%17,9).



2019ko lehen hamar hilabeteetan, Euskal AEko esportazioek (21.237,7 milioi) %1,9ko beherakada izan dute aurreko urteko aldi berarekin alderatuta; hau da, 421,2 milioi gutxiago. Esportazio energetikoak dira beherakada horren errudunak, %20,0 egin baitute atzera; ez-energetikoak, berriz, %0,1 igo dira.

Euskal AE osorako inportazioen kopuru metatua 16.903,7 milioi eurokoa izan da aztertutako aldian. Urte artean kopuru hori alderatuz gero, ikusten da 2018ko epe berean erregistratutakoa baino 51,9 milioi gutxiagokoa dela; hau da, %0,3 gutxiago. "Produktu energetikoen" inportazioak %6,0 egin du behera, eta "Produktu ez-energetikoenak" %2,0 egin du gora.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2019ko urtariletik urrira, 4.334 milioi euroko saldo positiboa izan du; hau da, estaldura-tasa %125,6koa izan da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62